

OLERKIAK

HERIOTZAREN ATEA DUGU BIZITZA

*Zu zaitut goitik beheraino eta aitzinetik gibeleraino mundu eta etxe,
eta etxe barnean barrenean zu, su (Joxanton Artze)*

Ikusten ez dena ikusten lagundu zenidan, olerkari,
eta ikusi nahi duenak jo dezala norbere barnera irakurri nion Artzeri,
begirada eta irribarre amultsuz erran zidan poesia zuela ogibide.

Denek gehiago nahi dugu
Aitzinean dagoen pertsona oparotasunez bizi dela ikusi uste dugunean.

Hil ere noski ez du inork hil nahi

eta bizi nahian

bizi-minez

denek nahi dute hil

ez al gaitu bada bizitzeak hiltzen?

Badoazkigu urteak,

urteak urteen ondotik

okerxeago edo zuzenxeago

badoaz joanean,

bagoaz gu ere haiekin batera

errespetu ederrean.

Noiz sortu nintzen

dakienak bakarrik daki

eta 40 urte zenituela jaio omen zinen, Artze, zuk hala nahita.

Ene 41 urte kritiko hauetan, bai erraten diot bizitzari.

Adi gazteok eta ez hain gazteok,

kasu nola dituzuen zuek baino zaharragoak hartzen gaur,

nola dituzuen maitatzen,

zuek ere zuek baino gazteagoak hor daukazue eta gibelean.

Denok goaz zorionaren gibeletik,
jakin gabe zer den hegan doan hori,
jakin-jakin inork ez daki
dirudunek bezain ongi
diruak ez dakarrela zorionik.
Gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi
erran zenuen, Artze,
igarri zeniolako
beste lanak bertan behera utzita
ekiten diola olerkariak olerki ontzeari,
zein da bi punturen artean biderik laburrena?
galderari olerkariak erantzun:
biderik ederrena.
Hain gara guzti behar gizakiok,
ezereza bizitzea bezalako heriotzarik ez dago bizitzan!
Gizon handia da mundua,
eta mundu ttikia, gizona.
Mundua gizonarentzat egina da
baina ez gizona munduarentzat!
Ahoz aho ahora
eskuz esku eskura, eskuara: hitza eta bizia.
Ez da begiz ikustekoa ikusi beharrekoa
beharrezkoa den gauza bakarra ikusteko:
bihotza.
Ezin xarmantkiago erakusten digu izadiak
aho bat eta bi belarri ditugula
gutxiago hitz egin eta gehiago entzun dezagun.
Maitatuak garelako, izan, bagara gu,
maite dugulako, bizi, gara gu bizi.
Maitatzen hasi arte ez gara zinez bizitzen hasten.
Gure aitzineko arbasoen bizilekuekin alderatuz
gaur jauregietan bizi gara,
badaukagu negurako gela guztietatik,
baina ez barrena bero diezakegunik.

Edozein etxoletan, delarik eta txiroenetan
 maitasuna baldin bada nagusi han, bada etxerik.
 Eta ni etxean naiz hemen zuen artean,
 zeren eta zeinek zioen Hatsa izpiritu ikusezina dela
 nik sentitzen badut zuen bihotzeko hitzon maitasuna?

Ainara Mayaurroz

LAGUNTZA-ESKATZE HANDIA

Jainkoaren Adimeneko Argi-puntutik
 Gizakion adimenera Argia isur dadila;
 Argia Lurrera jaitsi dadila.

Jainkoaren Bihotzeko Maitasun-puntutik
 Gizakion bihotzetara maitasuna isur dadila;
 Kristo Lurrera itzul dadila.

Ezaguna den Jainkoaren Borondatearen erdigunetik
 Helburuak Gizakion borondate txikiak bidera ditzala,
 Maisuek ezagutzen eta eskaintzen duten Helburua.

Gizakion arraza deitzen diogun erdigunetik
 Maitasunaren eta Argiaren Egitasmoa burutu dadila
 Eta gaizkia dagoen atea zigila dezala.

Argia, Maitasuna eta Boterea ezar daitezela Lurraren Egitasmoan.

Ainara Mayaurroz

**MUXU-KITARRA: SCACCIA PENSIERI
(PENTSATZEARI UZTEA)**

Pentsatzeari uztea
erabaki dut
eta MUXUAK banatzera gatoz,
etorri gara zuen artera
muxu-kitarraz
pentsatzeari uzteko
eta sentitzera,
sentituz batera
ekitera
bihotzaren arabera.
Muxu-kitarra mututuz batera
pentsatzeari ekiten diot,
bihotzaren taupadak mantsotuz doaz
eta MUXUAK zuengan gelditzen dira...

Ainara Mayaurroz

ETA ZUK, ZENBAT URTE DITUZU?

Nik nahiago dut erantzun
 metroan 10 begiradek irribarre eginarazi didatela.
 Esandako 2 “maite zaitut” suizida ditut,
 Bai bainekien aurrean nuenak ez ninduela maite.
 14 besarkada ahaztezin ere baditut,
 horietako 3 errepikaezinak.
 35 inguru “sentitzen dut” ditut,
 eta horietako batzuek ez ninduten barkatu.
 5.200 musu ditut,
 baina 3 bakarrik gogoratzen ditut.
 Amaigabeak ziruditen 4 uda ditut,
 eta hotzegiak, bakartiegiak eta tristeegiak diren 2 negu.
 Lorik gabeko 75 gau ditut,
 Eta axolarik ez zuten gauzetan
 alferrik galdutako malko batzuk.
 Zenbait urtetan negar egitea merezi zuen gauza bategatik
 2 malko oso mikatz ere baditut.
 150 barre-algara
 airea kenarazten duten horietakoak
 eta buruko mina jartzen dutenak,
 eta konpromisozko 10 irribarre.
 Askoz ere beranduago ulertu ditudan
 3 aholku jaso ditut.
 Egon nahi ez nuen 2 ohe ditut,
 eta egunsenti batean bertan egoteagatik
 edozer emango nukeen ohe 1.

Berriro ere egingo nituzkeen 5 akats ditut,
eta egin izanaz asko damutzen naizen 2.
Gorputz osoko 2 hotzikara ditut...
Ezin konta nitzakeen 200 film eta kanta.
71 arratsalde ditut liburu bat irakurtzen parke batean
bizitza eta jendea pasatzen ikusiz...
Inoiz esan nahi ez nituen 2 agur ditut...
Beharbada egunen batean esango ditudan
gauza asko ditut,
eta askoz ere gauza gehiago
isildu behar izan nituzkeenak.

Jakin nahi duenarentzat
hori da nire adina,
eta ez dut ideiarik ere
zenbat urtetan sartzan den hori guztia.
ZORIONAK!

Ainara Mayaurroz